ispaster

**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

ISPASTERKO UDALAREN ETA BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, **"ISPASTERKO UDAL MUGARTEKO BARAINKA, SOLOARAN ETA GALLETE AUZOETAKO SANEAMENDU PROIEKTUA"** DELAKOAN BARNE HARTURIKO OBRAK GAUZATU ETA FINANTZATZEKO.

COVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE ISPASTER Y EL CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA PARA LA EJECUCIÓN Y FINANCIACIÓN DE LAS OBRAS INCLUIDAS EN EL **"PROYECTO DE SANEAMIENTO DE LOS BARRIOS BARAINKA, SOLOARAN Y GALLETE, T.M. DE ISPASTER"**

Bilbon, 2016ko apirilaren 13(e)(a)n

En Bilbao, a 13 de 04 de 2016

## BATU DIRA

**GARBIÑE SAENZ DE BURUAGA GARRALDA andrea, Ispasterko Udaleko alkate-udalburua, 2016ko martxoaren 31ko Udalbatzako Akordioaz baliatuta.**

**RICARDO BARKALA ZUMELZU jauna, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko presidentea, 2016ko apirilaren 12ko Zuzendaritza Batzordearen akordioak egintza honetarako emandako ahalmenez baliatuta.**

## REUNIDOS

**Dña. GARBIÑE SAENZ DE BURUAGA GARRALDA, Alcaldesa-Presidente del Ayuntamiento de Ispaster, actuando en virtud del Acuerdo del Pleno de fecha 31 de marzo de 2016.**

**D. RICARDO BARKALA ZUMELZU, Presidente del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia, facultado para este acto por acuerdo del Comité Directivo de fecha 12 de abril de 2016.**

## JARDUN DUTE

Biek jardun dute beraien erakundeetako presidente eta ordezkari gisa, eta legezko gaitasun nahikoa aitortu diote elkarri LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzeko. Beraz,

## INTERVIENEN

Los dos intervinientes actúan como Presidentes de sus respectivas Entidades y en su representación, reconociéndose capacidad legal suficiente para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto,

ISPASTER ELIZATEA · BIZKAIA

CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA · PRESIDENCIA · BILBAO BIZKAIA UR PATZUERGOA · LEHENDAKARITZA

## HONAKOA ADIERAZI DUTE

**LEHENENGOA.**
Ispasterko Udalak eskumena dauka estolderia eta hondakin uren tratamenduaren arloan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera.

**BIGARRENA.**
Partzuergoaren egiteko nagusia partzuergoratutako udalen lurralde-eremuan Ur Hornikuntza eta Saneamendu zerbitzuak ematea da, bere Estatutuen arabera; izan ere, Estatutuen azken aldaketa 2014ko azaroaren 5eko Batzar Nagusian onartu zuen.

**HIRUGARRENA.**
Gaur egun, Partzuergoak Lehen Mailako Sareko Saneamendu Zerbitzua eskaintzen du, eta Udala Bigarren Mailako Sarearen edo udal estolderiaren arduraduna da.

**LAUGARRENA.**
Udal Zerbitzu Teknikoek "ISPASTERKO UDAL MUGARTEKO BARAINKA, SOLOARAN ETA GALLETE AUZOETAKO SANEAMENDU PROIEKTUA" idatzi dute, kontratu bidez gauzatzeko. Kontratuaren aurrekontua **625.503,28 eurokoa** da, BEZ kanpo, eta betearazteko epea, berriz, **6 hilabetekoa**.

Alde biek ezagutzen dute aipatutako proiektuaren edukia, Barainka, Soloaran eta Gallete auzoetan hondakin urak biltzeko obrei buruzkoa; auzo horiek, izan ere, ez dute saneamendu sarerik gaur egun. Proiektuak barne hartzen ditu, era berean, hondakin urak garraiatzeko eta Ispasterko udalerrian gaur egun dagoen saneamendu sareari lotzeko beharrezkoak diren kolektoreak.

**BOSGARRENA.**
Bi erakundeek interes handia dute "Ispasterko udal mugarteko Barainka, Soloaran eta Gallete auzoetako saneamendu proiektua" delakoan zehaztutako lanak egiteko, betiere, udal saneamenduaren gaur egungo egoera nabarmen hobetzeko asmoz.

## EXPONEN

**PRIMERO.**
Que el Municipio de Ispaster tiene competencia en materia de alcantarillado y tratamiento de aguas residuales, en virtud de la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

**SEGUNDO.**
Que el Consorcio tiene como misión primordial la prestación de los Servicios de Abastecimiento de Agua y Saneamiento en el ámbito territorial de los municipios que lo componen, según sus propios Estatutos, cuya última modificación fue aprobada por la Asamblea General de 5 de noviembre de 2014.

**TERCERO.**
Que en la actualidad el Consorcio presta el Servicio de Saneamiento en Red Primaria, y el Ayuntamiento es responsable de la Red Secundaria, o alcantarillado municipal.

**CUARTO.**
Que los Servicios Técnicos del Consorcio han redactado el "PROYECTO DE SANEAMIENTO DE LOS BARRIOS BARAINKA, SOLOARAN Y GALLETE, T.M. DE ISPARTER", con un Presupuesto de Ejecución por Contrata, IVA excluido, de **625.503,28 EUROS** y un plazo de ejecución de **6 meses**.

Los intervinientes conocen el contenido de dicho Proyecto en el que se definen las obras de recogida de las aguas residuales de los barrios de Barainka, Soloaran y Gallete que carecen en la actualidad de red de saneamiento, así como los colectores necesarios para su transporte e incorporación a la red de saneamiento existente en el municipio de Ispaster.

**QUINTO.**
Que ambas Entidades tienen el máximo interés en que se lleven a cabo las obras definidas en el referido "Proyecto de Saneamiento de los Barrios Barainka, Soloaran y Gallete, T.M. de Ispaster", a fin de mejorar considerablemente la situación actual del saneamiento municipal.

**SEIGARRENA.**
Ondorio horietarako, Ur Partzuergoaren Lurzoruaren Kudeaketa Saila, Proiektua onartu aurretik, dagozkion izapideak egiten hasiko da, proiektuko lanek eragindako ondasunak eta eskubideak eskuratzeko.

**SEXTO.**
Que a tales efectos el Departamento de Gestión de Suelo del Consorcio de Aguas previamente a la aprobación del Proyecto iniciará los trámites necesarios para la obtención de los bienes y derechos afectados por las obras del Proyecto.

**ZAZPIGARRENA.**
Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 4.1.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Herri Administrazioen arteko harremanetan bete behar den lankidetza-printzipioa kontuan hartu da.

**SÉPTIMO.**
Que teniendo en cuenta el principio de cooperación que debe observarse en las relaciones entre Administraciones Publicas, a tenor de lo establecido en el Artículo 4.1.d) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Hala, bada, parte-hartzaileek Lankidetza Hitzarmen hau egin dute, klausula hauen arabera:

Los Intervinientes proceden a formalizar el presente Convenio de Colaboración, con arreglo a las siguientes:

## KLAUSULAK

**LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDE DIREN LANAK**
Hitzarmenaren xede diren lanak "Ispasterko udal mugarteko Barainka, Soloaran eta Gallete auzoetako saneamendu proiektua" izenekoari dagozkionak dira. Kontratuaren aurrekontua **625.503,28 eurokoa** da, BEZ kanpo, eta betearazteko epea, berriz, **6 hilabetekoa.**
Proiektuak barne hartzen dituen jarduketak dira, alde batetik, landa-guneotako barne saneamenduko bigarren mailako sareak eta, bestetik, gune horiek udalerriko sare nagusiari lotu eta horrekin bat egiteko kolektoreak; azken horiek aukerakoak dira, horien ordez arazketa-unitate txikiak jar baitaitezke auzo bakoitzean. Behin lanak gauzatuta, udalaren Bigarren Mailako Sarekoak izango dira aurrerantzean; hori horrela, sare horretara konektatuko dira erabiltzaile bakoitzaren hargune pribatuak.

**BIGARRENA.- PROIEKTU TEKNIKOA**
Ur Partzuergoak idatzi eta onartu du dagokion Proiektu Teknikoa. Proiektu hori erabiliko da lanak kontratatu eta gauzatzeko oinarri modura.

## CLÁUSULAS

**PRIMERA.- OBRAS OBJETO DEL CONVENIO**
Las obras objeto del Convenio son las correspondientes al denominado "Proyecto de Saneamiento de los Barrios Barainka, Soloaran y Gallete, T.M. de Ispaster", que alcanzan un Presupuesto de Ejecución por Contrata, IVA excluido, de **625.503,28 EUROS** y un plazo de ejecución de **6 meses**.
Las actuaciones incluidas en dicho Proyecto son, en parte, redes secundarias de saneamiento interior de los propios núcleos rurales y, en otra parte, colectores de incorporación y enlace de estos núcleos con la red primaria de saneamiento existente en el municipio, alternativos a la instalación de pequeñas unidades de depuración en cada barrio. Una vez ejecutados, todos ellos, pasarán a formar parte de la Red Secundaria de carácter municipal, a la que conectarán las correspondientes acometidas privadas de cada usuario.

**SEGUNDA.- PROYECTO TÉCNICO**
El Proyecto técnico correspondiente ha sido redactado por el Consorcio de Aguas, siendo aprobado por éste mismo. Dicho proyecto servirá de base para la contratación y ejecución de las obras.

ISPASTER ELIZATEKO UDALA

**HIRUGARRENA.- LURZORUAREN KUDEAKETA**

Ur Partzuergoak konpromisoa hartzen du Hitzarmen honen xede diren lanak behar bezala eta osorik egiteko behar diren lurzoruen gaineko baimenak eta erabilgarritasuna lortzeko.

Hitzarmen honen bitartez, Ispasterko Udalak ahalmena ematen dio Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari bere izenean dagokien erakundeen aurrean lanak betearazi eta ustiatzeko behar beste eskaera, baimen eta izapide egiteko.

**TERCERA.- GESTIÓN DE SUELO**

El Consorcio de Aguas se compromete a la obtención de las autorizaciones y disponibilidad de terrenos que exijan la correcta y total ejecución de las obras objeto del presente Convenio.

El Ayuntamiento de Ispaster faculta mediante la suscripción del presente Convenio que el Consorcio de Aguas pueda realizar en su nombre cuantas peticiones, autorizaciones, solicitudes y tramitaciones sean necesarias ante los organismos correspondientes para la ejecución de la obra.

**LAUGARRENA.- LANEN KONTRATAZIOA**

Lanen kontratazio-organoa Partzuergoaren Zuzendaritza Batzordea izango da.

Ondorioz, horrek izapidetu beharko du oso-osorik kontratazio prozedura, dagozkion eskumenekin eta erregimenarekin bat etorriz.

Hori guztia dela-eta, Partzuergoaren Zuzendaritza Batzordearen ardura izango da lanak esleitzea, Kontratazio Mahaiak proposatuta. Era berean, esleipenaren berri eman beharko dio Udalari.

**CUARTA.- CONTRATACIÓN DE LAS OBRAS**

El órgano de contratación de las obras será el Comité Directivo del Consorcio.

En consecuencia, será obligación de éste la tramitación completa del procedimiento de contratación, de acuerdo con las facultades y el régimen que le son propios.

Por todo ello, corresponderá al Comité Directivo del Consorcio la adjudicación de las obras, a propuesta de la Mesa de Contratación, dando cuenta de la misma al Ayuntamiento.

**BOSGARRENA.- LANEN ZUZENDARITZA**

Lanak, behin kontratatu eta behar diren baimen guztiak lortuta, Partzuergoko teknikariek zuzenduko dituzte.

**QUINTA.- DIRECCIÓN DE LAS OBRAS**

Las obras, una vez contratadas y disponiendo de todas las autorizaciones precisas, serán dirigidas por técnicos del Consorcio.

**SEIGARRENA.- LANEN ETA LURZORUAREN KUDEAKETAREN FINANTZAKETA**

Alde biei dagokie lanen finantzaketa, lan bakoitzaren funtzioen arabera. Hori horrela, Ispasterko Udalak ordaindu beharko ditu Proiektuan barne hartzen diren hiru auzoetako hondakin urak biltzeko obren eraikuntza lanak; eta Ur Partzuergoak, berriz, udalerriko Saneamendu Sare Nagusiari lotu eta horrekin bat egiteko lanak.

Obrak gauzatzeko oinarrizko lizitazio-aurrekontua **625.503,28 eurokoa** da **(BEZ kanpo)**; Ur Partzuergoak zenbateko horren %75 ordainduko du, eta Ispasterko Udalak, berriz, %25. Ehuneko horiek kalkulatzeko, proiektuan jasotako jarduketa desberdinen balorazioak hartu dira kontuan, arestian aipatutako funtzioen arabera.

**SEXTA.- FINANCIACIÓN DE LAS OBRAS Y DE LA GESTIÓN DEL SUELO**

La financiación de las obras será compartida dependiendo de la funcionalidad de las mismas, siendo de cuenta del Ayuntamiento de Ispaster las destinadas a la construcción de las obras de recogida de las aguas residuales en cada uno de los tres barrios contemplados en el Proyecto y correspondiendo al Consorcio de Aguas la ejecución de las obras de incorporación y enlace a la Red General de Saneamiento existente en el municipio.

El importe de las obras, cuyo presupuesto base de licitación asciende a **625.503,28 euros (IVA excluido), será abonado en un porcentaje del** 75% por el Consorcio de Aguas y del 25% por el Ayuntamiento de Ispaster, respondiendo estos porcentajes de reparto a la valoración de las diferentes actuaciones contempladas en proyecto de acuerdo a su funcionalidad según se ha descrito anteriormente.

Era berean, Hitzarmen honen xede diren lanak gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren lursailak desjabetzeari dagokion kostua ere modu berean hainbanatuko da. Beraz, Ur Partzuergoak desjabetzeek eragindako kostuaren %75 ordainduko du, eta Ispasterko Udalak, berriz, %25.

Aurrekoa ikusita, Hitzarmenean parte hartzen duten bi aldeak derrigortuta daude hartutako betebehar ekonomikoei aurre egiteko behar diren aurrekontu-esleipenak egitera.

Asimismo, el coste correspondiente a las expropiaciones de los terrenos necesarios para la ejecución de las obras objeto del presente Convenio, se repartirá del mismo modo que la ejecución de las obras, abonando por tanto, el Consorcio de Aguas el 75% del coste total correspondiente a las expropiaciones y correspondiendo abonar el 25% restante al Ayuntamiento de Ispaster.

A la vista de lo anterior cada una de las partes que intervienen en el Convenio se obligan a efectuar las consignaciones presupuestarias suficientes para hacer frente a las obligaciones económicas que contraen.

**ZAZPIGARRENA.- EKARPENEN ORDAINKETA**

Ispasterko Udalak Partzuergoari egin behar dizkion ordainketak egiteko orduan, ez da kontratua betearazteko epea kontuan hartuko; beraz, Udalak ordaindu beharreko zenbatekoa (lanak lizitatu aurretik) bost zatitan banatuko da, 2016., 2017., 2018., 2019. eta 2020. urteei dagozkionak, lanak gauzatzeko kostuaren %25 osatu arte.

Lanak amaitu aurretik, 2016. eta 2017. urteetan egin beharreko ekarpenak aipatutako lanen lizitazio-aurrekontuari dagozkio, eta aurrekontu horren %10 (%5 urte bakoitzean) ordaintzea dakar.

Lanak amaitu eta jaso ondoren, 2018., 2019. eta 2020. urteetan egin beharreko ekarpenak betearazitako lanen amaierako balorazioari dagozkio, eta balorazio horren %25en ordainketa egingo da.

2016. urteari dagokion lehen ordainketa lanak lizitatu aurretik egingo da, eta, gainerako urteetan, urrian.

**SÉPTIMA.- ABONO DE LAS APORTACIONES**

El abono al Consorcio de las aportaciones del Ayuntamiento de Ispaster se realizará con independencia del plazo de ejecución del contrato de obras de modo que el importe a abonar por el Ayuntamiento, se fraccionará en cinco pagos a realizar en los años 2016, 2017, 2018, 2019 y 2020 hasta completar el 25% del coste de ejecución de las obras.

Las aportaciones a realizar en los años 2016 y 2017, previamente a la finalización de las obras, se refieren al presupuesto de licitación de las mismas y suponen el pago del 10 % (5% cada año) de dicho presupuesto.

Finalizadas y recibidas las obras, las aportaciones correspondiente a los años 2018, 2019 y 2020, se refieren a la valoración final de las obras ejecutadas y completarán el pago del 25% de dicha valoración,

El primer pago correspondiente al año 2016 se efectuará antes de licitar las obras y en el resto de los años en el mes de octubre.

**ZORTZIGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA**

Hitzarmen honetan jasotzen denaren jarraipenerako, Jarraipen Batzordea eratuko da. Batzordea lau pertsonak osatuko dute: bi dagokion udalerrikoak izango dira, eta beste biak, berriz, Partzuergokoak.

Hitzarmenak indarrean dirauen bitartean, Batzordearen egitekoa auzi tekniko, ekonomiko eta lankidetzazkoei buruzko zalantzak argitzea izango da.

**OCTAVA.- COMISION DE SEGUIMIENTO**

Para el seguimiento de lo estipulado en el presente Convenio se creará una Comisión de Seguimiento que estará integrada por cuatro personas, dos por parte del municipio y dos por parte del Consorcio.

El cometido de la Comisión será el de dilucidar cuantas cuestiones técnicas, económicas y de colaboración entre las partes se susciten durante la vigencia del Convenio.

**BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA.**

Hitzarmen honek sinatzen den unetik sortuko ditu ondorioak aldeentzat, eta Ispasterko Udalak azken ordainketa egin arte iraungo du.

**HAMARGARRENA.- HITZARMENAREN AMAIERA.**

Aurreko klausulan aipatutako indarraldi-epea amaitu delako edo suntsitu delako iraungiko da hitzarmena.

Aldeetako batek ez baditu bere gain hartutako konpromisoak betetzen, beste aldeak eskumena izango du konpromiso horiek zorrotz bete daitezen eskatzeko edo bertan behera uzteko eskatzeko.

Hitzarmena suntsituz gero, aldeek zehaztuko dituzte betearazten ari diren jarduerak bukatzeko eta ordaintzeko baldintzak.

Eta adostasuna agertzeko, agertutako alde biek sinatu dute, bi aletan, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

**NOVENA.- EFECTOS Y DURACION DEL CONVENIO**

El Convenio surtirá efecto y obligará a las partes intervinientes desde su firma y durará hasta que se realice el último pago del Ayuntamiento de Ispaster.

**DECIMA.- EXTINCION DEL CONVENIO**

El Convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referida en la cláusula anterior o por resolución.

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra a exigir su estricto cumplimiento o a solicitar su resolución.

En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución.

Y en prueba de conformidad, lo firman los dos comparecientes, por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

Garbiñe Saenz de Buruaga
**Ispasterko Udalaren Alkatea-Udalburua**
Acaldesa-Presidenta del Ayuntamiento de Ispaster

Ricardo Barkala Zumelzu
**Bilbao-Bizkaia Ur Portzuergoko Presidentea**
Presidente del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia